



Irati Burgués ° Ibai Gandiaga ° Ula Iruretagoiena °

# Euskal frontoia: arketipoa eta eskala

*Aldiri*, 2012, III, 11, 13–22, ISSN 1889–7185

*Jasotze-data: 2012-06-30 / Onarpen-data: 2012-07-13*



*Pilota-partida Egoibaiko pilotalekuan. San Bartolome jaietan. Indalezio Ojangueren, 1940 (CC-BY-SA)*

**LABURPENA:** Frontoiek euskal herrietako erdiguneetan izan duten garrantzi arkitektonikoaz jabeturik, frontoi garaikidearen izaera definitzeko gerturapena dugu hau. Horretarako 3 frontoi-proposamen aukeratu dira eta egileen gogoetak jaso dira 3 solasalditan. Frontoia tipologia desberdinak jaso nahi izan dira: hiri-eskalako frontoi-eraikin itxia, espazio publikoa eratzen duen frontoia eta frontoi baten estaldura.

**GAKO-HITZAK:** Euskal frontoia, espazio publikoa, frontoi garaikidea

**ABSTRACT:** Basque pelota courts (known as frontons) have become major architectural places in public spaces across the Basque country. Three projects involving the construction of frontons were selected and their creators interviewed to learn more about the contemporary approach to the design of frontons. These examples were selected to include three different types of frontons: an indoor fronton, an outdoor fronton, and a covered outdoor fronton.

**KEY WORDS:** Basque pelota court, public space, contemporary basque wall-game

Frontoia euskal arkitekturaren arketipoa da, eta, ez bairik gabe, diseinu bikaina. Aurreko belaunaldiko arkitektoak liluraturik izan zituen forma puruen sinpletasunak sor zitzakeen espazio puruak, argiak, zalantza izpirik gabekoak. Era berean, aurreko belaunaldiak bizi izan zuen identitatearen berreste herriko horretan izugarri ondo txertatzen zen frontoia izaera xaloa, zaharra, ia unibertsala.

Azkoitian dagoen frontoiak, Anton Mendizabal eskultorearen eta Carlos López Ceballosen obra, frontoien unibertsaltasuna zalantzan jartzen du, lurralde bakoitzeko frontoien tipologia bat azaltzen baitzaigu; edozelan ere, kirol xumeek jaso izan dute, historian zehar, unibertsaltasunaren ikurra, eta garbitasunak eta sinpletasunak egiten dute kirol bat eskurgarri baliabide gutxi dutenentzat. Hau da, poloa futbolaren kontra, tenisa kriketaren kontra, eta abar, eta abar.

Sinpletasun hori frontoia izaeran txertatzen da, eta horretan datza haren genialtasunaren arrazoiak: diseinu onak oso-oso sinpleak izaten direlako. Azkenengo hamarkade-

tan, ordea, frontoia artifizializazio batera heldu gara, eta haren izaera, jada, ez dator herri-gunearen hazkuntza organikoarekin bat, baizik eta oso modu azkarrean hazi diren biztanle multzoei kalitatezko zerbitzu bat ematearekin.

Hortaz, hainbat eskalatako ekimenak topa ditzakegu frontoien inguruan, eta ALDIRI honetan horien lagin txiki batzuk ekarri nahi izan ditugu; frontoiak askotariko zerbitzuak ematen baititu, ez bakarrik kirol jakin bati aterpe ematearena. Frontoiak herri-eskala txikia har dezake, Armintzakoa esaterako, edo, eskala handituz, Ajangizeko frontoia kasu, edo eskualde oso baten eskalan eraiki, Bilboko Bizkaia Frontoiak erakutsi legez.

Kasu horietan guztietan, frontoiak arketipoa izatearen bertutea eta madarikazioa dauka; baserriaren tipologiari gertatu bezala, edozein urrats ondo neurtua behar da izan, atzetik daramagun zama ikonografiko, sinboliko, historiko, politikoak, irauli eta zanpatu ez gaitzan.